

## Poeta banandu-berri baten egunkaria

**A**zaroak 1: ez dut bate-  
re atsegin egoera hau,  
eta sekula baino  
muturbeltzago jartzen  
ari zait orri zuria.

Hitzak pasatu dira. Eta urteak. Tangoan ez dira ezer, baina urte asko dira arin-arin baten doinuuan. Ez dut gehiago hitz egingo. Erraz esaten da. Azaroak 2: ez gaude udaberrian, eta, hala ere, nire lorategian arazo asko hazten dira. Badut hildako lore guztien antza. Martxoak 3: berak maite ninduen, nik bera ere bai. Kanta txarrek ez dakite isilik egoten. Urriak 14: Amarekin hitz egin dut. Euria etengabe ari du, suilaz. Dibortzio-paperak mahai gainean jarri ditut, sinatzeko. Azaroak 4: egunez lo nago, gauez, berriz, esna. Eguna raperoek lepo inguruan daramaten urrezko kate astuna bezala luzatzen da. Gauak oso ondo ematen dit, pena da atentatuen ondorioak ertratatzan dituzten argazkilaririk ez egotea. Azaroak 5: dena berez bezala dator, ezer eskatu beharrik gabe, zorigaitzak ez du ezertxo ere komentatzen ez galdetzen, bereziki galdetzen. Irailak 6: aurten ez da langile autonomo berrientzat diru-laguntzarik emango. Enplegu politika aktiboak “ukaezinak” direla dio Gemma Zabaletak. Unerik okerreana aukeratu dudala autonomo izateko, hori da ukaezin. Ekainak 7: kultur-ekimenak erdira murriztea erabaki duten berri ematen den bakoitzean, beti eta hutsik egin gabe krisia jartzen dute aitzaki orain erakunde guzti-guztiek. Berdin-berdin egiten zuten ustez krisirik ez zegoenean eta berdin-berdin zitzaien orduan ere. Ezin dut sufritu kultura hau! Azaroak 8: kezagarriena ez da orain gastuak biderkatu egin zaizkidala batetik eta bestetik, eguna joan eta eguna etorri denbora garesti ordaintzen hasi naizela baizik. Apirilak 16: zer egunetan bizi garen ez dakit. Zer egunetan hiltzen


CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Urkiza

ere ez. Ez esan sekula inori asko nekiela. Azaroak 10: ahaztu nazioarteko haurren adopzioak ematen dituen buruhaustek. Bila nazazue ni oraindik haurdun ez dauden arbasoen artean. Azaroak 11: indarberrituta sentitzen naiz, tximeletak egun bat bete baino lehen hiltzen dira, ni larba zaharra naiz

dagoeneko. Azaroak 11: burua galtzen ari naizela usteko du norbaitek, baina ez da egia. Ez burua bakarrik, nik dena galdu nuen kobrezko jainkoaren irudia kutxatik atera eta hain berezkoa zuen ibilera makur harekin kalean behera abiatu zenean esku odoltsuak bizkar atzean eta hitzik esan gabe. Urtarrilak 4: ezkondu ginen gizarte-zerbitzuen diru-laguntza jasotzearen premiagatik, beste batzuk ezkondu egiten dira maitasunagatik. Ez dakit zer den okerrago. Otsailak 7: egunen ordena zehatza galdu egin dut erabat. Dena Daliren ordularien itzaletan geratzen da. Uztailak 2: ez dut bihotza zabaltzen edo nire barne kontuak kontatzen ausardiagatik, ni ez naizelako batere ausarta, ez eta nire burua gupidatzea-gatik. Horrela agertzen naiz, baina ez dakidalako bestela zer idatzi, eta ezin dudalako besterik idatzi. Azaroak 19: “*Estimado cliente, en su cuenta ha ingresado una transferencia de 715.15 euros. Remitente: Perlita Arreola. Número de control: BB64473717. Siga el enlace para consultar la información. Atentamente, su banco BBVA*”. Mezu bat agertu zait horrela. Puta-

kumeak! Arazoak 22: gogora etorri zait Juan Ramon Jimenezen *Poeta ezkondu-berri baten egunkaria*. Bai izenburu ederra! Abenduak 31: gorroto diot urte zaharrari. Eta urte berriari ere bai. Eta gizaki berri izateko erabakia hartu nuen aurtengorako. Fun-tsean, ez aspertzeko bide bat da, gero ez dudalako inoiz gogorik izaten gizaki izateko. Azaroak 23: Barkaidazue... ■



Ahaztu nazioarteko haurren adopzioak

ematen dituen buruhaustek.

Bila nazazue ni oraindik haurdun

ez dauden arbasoen artean

